Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

2025ZAUN0133

IRUNGO ZUHAITZAK MANTENDU, KONTSERBATU, HOBETU ETA HORNITZEKO KONTRATAZIOA
CONTRATACIÓN DEL MANTENIMIENTO, CONSERVACIÓN, MEJORA Y SUMINISTRO DEL ARBOLADO DE LA CIUDAD DE IRUN.

- BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA - PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS -
- Prozedura irekia, erregulazio harmonizatua - Procedimiento abierto, regulación armonizada -

ARLO SUSTATZAILEA/ ÁREA PROMOTORA:	MUGIKORTASUN, BIDE PUBLIKO ETA OBRA ARLOA / ÁREA DE MOVILIDAD, VÍA PÚBLICA Y OBRAS.
ESPEDIENTE KODEA/ CÓDIGO EXPEDIENTE:	2025ZAUN0133

1. KONTRATUAREN XEDEA.

Baldintza teknikoen plegu honen helburua da Irungo zuhaitzak mantendu, kontserbatu, hobetzeko eta hornitzeko lanak prozedura ireki bidez kontratatzea arautuko duten baldintzak ezartzea.

Kontratu honek lan hauek hartzen ditu barnean, besteak beste:

- Mantentze lanak (*ofiziozko lanak*):
  - Zurkaitzak eta zutigailuak mantentzea.
  - Txorkoak mantentzea.
  - Ureztatzea.
  - Adar hilak kentzea eta lokalizatutako beste inausketa batzuk.
  - Erortzen diren adarrak erretiratzea.
  - Tratamendu fitosanitarioak egitea.
  - Medeatzea.
  - Beste lan batzuk egitea (urratzea eta jorratzea).
  - Informazioa mantentzea: lanen inbentarioa eta kudeaketa.
  - Abisuak kudeatzea, jarraipena egitea eta konponbidea ematea.
  - Prebentziozko mantentze lanak egiteko ikuskatze lanak.
- Inaustea.
- Birlandatzea.
- Ipurditik moztea eta motzondoak erauztea.
- Zuhaitzak babestea.
- Ainguratzea.

1.- OBJETO DEL CONTRATO.

El objeto del presente pliego de prescripciones técnicas es fijar las condiciones que deben de regir en la contratación mediante procedimiento abierto de los trabajos de mantenimiento, conservación, mejora y suministro del arbolado de la ciudad de Irun.

Entre los trabajos incluidos en el presente contrato se incluyen:

- Labores de mantenimiento (*trabajos de oficio*):
  - Mantenimiento de tutores y enderezados.
  - Mantenimiento de alcorques.
  - Riego.
  - Eliminación de ramas muertas y otras podas localizadas.
  - Retirada de ramas caídas.
  - Tratamiento fitosanitarios.
  - Enmiendas.
  - Otras labores (entrecavado y escarda).
  - Mantenimiento de la información: inventario y gestión de los trabajos.
  - Gestión, seguimiento, resolución de avisos.
  - Inspecciones de mantenimiento preventivo.
- Podas.
- Trasplantes.
- Apeos y destoconados.
- Protecciones al arbolado.
- Anclajes.

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en: http://www.irun.org/validador
Balioztapen kodea/Código de verificación: WB8F-AR5W-I3TY-COQP
Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica
Alexander BOUBETA LUIS JEFE DE MANTENIMIENTO URBANO (04/12/2025 09:09 CET)

- Txostenak.
- Ale berriak hornitzea eta landatzea.
- Zuhaitzen garapen fase guztietan ikuskatze lanak egitea, prebentzio lanak egin beharko balira.
- Ureztapena kudeatzea, arrisku egoeran dauden zuhaitzak ikuskatu eta xeheki aztertzea eta berauen jarraipena egitea barne.

- Informes.
- Suministro y plantación de reposiciones o nuevos ejemplares.
- Inspecciones, en todas las fases de desarrollo del arbolado, favoreciendo la posible realización de labores preventivas.
- Gestión del riesgo, en el que se incluye la inspección, seguimiento y análisis detallado del arbolado de riesgo.

2. JARDUERA EREMUA.

2.1. JARDUERA EREMUA ETA ZONAK.

Plegu honen aplikazio-eremuak hiriguneko zuhaitz guztiek osatzen dute; besteak beste, bide-zuhaiztiak, Irungo hiri-lurzoruan dauden hiri-parkeetako eta espazio berdeetako zuhaiztiak, zuhaitzen inbentarioaren datu-basean adierazten den bezala, gehi, inbentarioan sartu ez arren, esleipenaren unera arte Udalak jaso dituenak edo hutsegite bat dela-eta barnean hartzen ez dituenak ere.

Honako informazio hau emango zaie enpresa esleipendunei:

- Hiriguneko zuhaitzen inbentarioa
- Zuhaitzak kudeatzeko plana
- Zuhaitzen analisi eta diagnostikoa

Enpresa esleipendunaren kontura izango dira langileen, materialaren, makineriaren, behin-behineko seinaleen, hondakinen kudeaketaren, joan-etorrien eta beharrezkoak diren hornigaien gastu guztiak, eta, oro har, kontratatzen diren mantentze lanak behar bezala egiteko beharrezkoak diren gastu guztiak.

Berdeguneetan egiten diren garbiketa lanak gorabehera, zuhaitzak mantentzeko lan espezifikoen esleipena duen enpresak sortzen den nolanahiko zikinkeria garbitu beharko du, lanak egiten dituen bitartean zein lanak egiten bukatutakoan.

2.2.- EMANDAKO INFORMAZIOA.

Udalaren webguneko kontratazioaren atalean, deskargatzeko moduan daude, alde batetik, “pdf” formatuko hainbat txosten, bertan zuhaitzak kudeatzeko plana eta Irungo zuhaitzen azterketa eta diagnostikoa sartuta, eta, bestetik, zuhaitzen inbentario eguneratuaren datu-basea eta mantentze-lanetako elementuen artxibo

2.- ÁMBITO DE ACTUACIÓN.

2.1.- ÁMBITO Y ZONIFICACIÓN.

El ámbito de aplicación del presente Pliego alcanza al conjunto del arbolado urbano de la ciudad; incluye el arbolado viario, el arbolado de los Parques Urbanos y Espacios Verdes contenidos en el suelo urbano de la ciudad de Irun, tal y como se indica en la base de datos del inventario de arbolado, más aquellos otros que, aun no habiendo sido incluidos en el mismo, hayan sido recibidos por el Ayuntamiento hasta el momento de la adjudicación, o no figuren por error.

La información que se facilitará a las empresas licitadoras es la siguiente:

- Inventario del arbolado urbano.
- Plan de gestión del arbolado.
- Análisis y diagnóstico del arbolado.

La empresa adjudicataria correrá con todos los gastos de mano de obra, material, maquinaria, señalización provisional, gestión de residuos, desplazamientos y aprovisionamientos necesarios y en general con todos los gastos necesarios para el perfecto desarrollo de los trabajos relacionados con el objeto de contrato.

Independientemente de las tareas de limpieza que sean realizadas en las zonas verdes, la empresa adjudicataria de trabajos específicos de arbolado, deberá realizar la limpieza de todo tipo de suciedad generada en el curso de sus trabajos y al finalizar las labores encomendadas.

2.2.- INFORMACIÓN FACILITADA.

En el apartado de contratación de la web municipal se encuentran disponibles para descarga, por un lado los diferentes informes en formato “pdf” donde se incluye el Plan de gestión del arbolado y un Análisis y diagnóstico de arbolado de Irun, y por otro la base de datos del inventario actualizado de arbolado así como los archivos

geografikoak SHAPE formatuan.

Informazio hori on line deskargatu edo kontsulta daiteke URL honetan: https://gurebox.irun.org/index.php/s/eUYxXVcvtSHYFnq.

2.3. ZUHAITZ GEHIAGO.

Kontratu hau indarrean dagoen bitartean, enpresa esleipendunak obra berriak, zonak handitzeko lanak, zona berrien harrera, erosketak... direla medio Irungo Udalaren esku gelditzen diren zuhaitzak kontserbatu beharko ditu, kontratuaren araberako baldintza beretan.

2.4. APLIKATU BEHARREKO ARAUDIA**.**

Plegu hau herritarren portaerari buruzko udal ordenantzekin, Irungo Berdeguneen eta Zuhaiztien Plan Zuzentzailearekin, Irungo Zuhaitzak Kudeatzeko Planarekin, Ingurumenaren Iraunkortasunerako Planarekin, Garapen urbanistiko jasangarriaren Ordenantzarekin, eta kontratua indarrean dagoen bitartean aplikatu beharreko araudi ororekin bat etorriko da. Gainera, araudi/dokumentazio hau aplikatu beharko da: Granadako Araua, zuhaitz apaingarriak baloratzeko metodoa, Parke eta Lorategi Publikoen Espainiako Elkartearena; Lorezaintza eta Paisajismo Arau Teknologikoak, Fundació de la Jardineria i el Paisatgerenak (bereziki, 15R Lorezaintza Arau Teknologikoaren 1. atala, hiriguneko zuhaitzen arriskuak kudeatzeari buruzkoa); Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantza Sailak parke eta lorategietan produktu fitosanitarioak erabiltzeko araututako dokumentu eta gida eguneratuak edo, bestela, Euskal Autonomia Erkidegoan gaia arautzen duen indarreko dokumentua.
Produktu fitosanitarioen erabilera jasangarria lortzeko jarduera esparrua ezartzen duen irailaren 14ko 1311/2012 Errege Dekretuak eta Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantza Sailak parke eta lorategietan produktu fitosanitarioak erabiltzeko araututako dokumentu eta gida eguneratuak edo, bestela, Euskal Autonomia Erkidegoan gaia arautzen duen indarreko dokumentua, Espezie inbaditzaile exotikoen Espainiako katalogoa, Arborikulturako Espainiako Elkarteak argitaratutako inausketa, landaketa, euskarri, arriskuaren kudeaketa eta abarren Europako Estandarrak.

3. LANEN DEFINIZIOA.

Edukiaren arabera, hona hemen enpresa esleipendunak

geográficos en formato SHAPE de los elementos de mantenimiento.

Esta información puede descargarse o ser consultada on-line en la siguiente URL: https://gurebox.irun.org/index.php/s/eUYxXVcvtSHYFnq.

2.3.- AMPLIACIÓN DEL ARBOLADO.

Durante el periodo en vigor del presente contrato, la empresa adjudicataria estará obligada a admitir para su conservación el arbolado que con motivo de obra nueva, ampliaciones, recepciones, adquisiciones, etc., sea incorporado, en las mismas condiciones de contrato.

2.4.- NORMATIVA APLICABLE.

Serán concordantes con el presente Pliego, las Ordenanzas Municipales de Comportamiento Ciudadano, Plan Director de zonas verdes y arbolado de Irun, Plan de Gestión del arbolado de Irun, Plan de Sostenibilidad Ambiental, Ordenanza de desarrollo urbanístico sostenible y cuanta normativa municipal sea de aplicación a lo largo de la vigencia del contrato. Además será de aplicación la siguiente normativa/documentación: Método de valoración del arbolado ornamental "Norma de Granada" de la Asociación Española de Parques y Jardines, Normas Tecnológicas de Jardinería y Paisajismo, publicadas por la Fundació de la Jardineria i el Paisatge, en especial la NTJ 15R/parte 1-Gestión del riesgo en el arbolado urbano, documentos actualizados de Guías de uso y Productos fitosanitarios a utilizar en parques y jardines, regulados por el Real Decreto 1311/2012, de 14 de septiembre por el que se establece el marco de actuación para conseguir un uso sostenible de los productos fitosanitarios o por el Departamento de Agricultura, Ganadería y Pesca del Gobierno Vasco, Guía GIP; Gestión integral de plagas, para parques y jardines, publicado por el Ministerio de agricultura pesca y alimentación, o en su caso el documento en vigor que regule esta cuestión en la Comunidad autónoma del País Vasco, Catálogo español de especies invasoras exóticas, los Estándares Europeos de poda, plantación, sustentación, gestión del riesgo etc., editados por la Asociación Española de Arboricultura.

3.- DEFINICIÓN DE LOS TRABAJOS.

Los trabajos que deberá realizar la empresa adjudicataria

egin beharreko lanen sailkapena: mantentze lanak egitea, inaustea, birlandatzea, ipurditik moztea eta motzondoak erauztea, zuhaitzak babestea, ainguratzea, txostenak, ale berriak hornitzea eta landatzea, ikuskatze lanak egitea, arriskua kudeatzea eta informazioa mantentzea (inbentarioa egitea eta lanak kudeatzea).

se clasifican según su contenido en: labores de mantenimiento, podas, trasplantes, apeos y destoconados, protecciones al arbolado, anclajes, informes, nuevas plantaciones y reposiciones (incluido el suministro de las plantas), inspecciones, gestión del riesgo y mantenimiento de la información (inventario y gestión de los trabajos).

3.1. MANTENTZE LANAK.

Hiriguneko zuhaitzak behar bezalako egoera botanikoan eta behar bezain apain mantentzeko beharrezkoak diren lanak egin beharko ditu enpresa esleipendunak, denborarekin ezaugarri horiek hobetzen direla nabaritzeko moduan.

Mantentze lan guztiak egiteko gastuak (tartean, beharrezkoak diren materialak, hala nola zurkaitzak, bridak, lokarriak, ongarriak, tratamendu fitosanitarioak, mulcha eta pinu azala, eta lanak egiteko beharrezkoa den material osagarria, hala nola hesiak eta behin-behineko seinaleak) ordaintzeko, gainerako lanen zenbatekoaren ehuneko bat ordainduko zaio enpresa esleipendunari, eta, gainerako lanen zenbatekoa kalkulatzeko, egiaz egiten diren lanen neurketen emaitzak eta esleipendunak berauek egiteko eskainitako prezioak batuko dira.

Kontratuaren esleipena duen enpresak eskainiko du ehuneko hori, eta kontratuaren indarraldi osoan egongo da indarrean atal honen barruko mantentze lanak ordaintzeko.

Hona mantentze lanen barruan egin beharreko lanen deskripzioa:

3.1.1. ZURKAITZAK ETA ZUTIGAILUAK MANTENTZEA.

Beharrezkoa duten zuhaitz gazte guztiek zurkaitzak eta/edo beharrezkoak diren lokarriak izan beharko dituzte, behar bezala jarrita. Pinuzkoak izango dira zurkaitzak, 8 cm-ko diametrokoak, azalez gabetuak, biribilduak, zorrotzak oinean, usteltzearen kontra tratatuak, eta zuhaitzak kulunkatzeko baina, aldi berean, egonkor mantentzeko bezain luzeak. Non landatuta dauden zuhaitzak, zurkaitz bat, bi, hiru edo lau jarri beharko dira. Baldintza jakin batzuetan, material birziklagarriak erabili ahalko dira, eta, batzuetan, baliteke modelo desberdinak behar izatea, zuhaitzei eusteko ahalmen handiagokoak, hala nola kableak eta zingilak.
Kautxuzko edo polietilenozko brida eta lokarriak erabiliko dira, 30 mm zabal direnak, eta zurkaitza eta zuhaitza besarkatzeko bezain luzeak. Zurkaitz kopuruaren

3.1.- LABORES DE MANTENIMIENTO.

Corresponderá a la empresa adjudicataria las labores necesarias para mantener el arbolado urbano en perfecto estado botánico y ornamental, de tal forma, que en éste se aprecie, con el paso del tiempo, una mejora de las características antes citadas.

Los gastos derivados de la ejecución de todas estas labores de mantenimiento, incluidos los materiales necesarios como tutores, bridas, ataduras, abonos, tratamientos fitosanitarios, mulch, corteza de pino, así como el material auxiliar necesario para cualquier actuación, como vallados, señalización provisional, se abonarán a la empresa adjudicataria como un porcentaje sobre el importe relativo al resto de trabajos, obtenido sumando los productos de las mediciones de los trabajos realmente ejecutados, y los precios ofertados para los mismos.
Este porcentaje será ofertado por la empresa adjudicataria del contrato, y regirá a lo largo del contrato para el abono de las labores de mantenimiento incluidas en este apartado.

A continuación se describen los trabajos incluidos en estas labores de mantenimiento.

3.1.1.- MANTENIMIENTO DE TUTORES Y ENDEREZADOS.

Todo el arbolado joven que lo necesite deberá tener correctamente colocados los correspondientes tutores y/o ataduras necesarias. Los tutores serán de pino, de 8 cm de diámetro, descortezados, redondeados, afilados en la base y tratados contra la pudrición. Su longitud será tal que permita el bamboleo del árbol y que a su vez permanezca estable. Podrá ser necesario colocar 1, 2, 3, o 4 tutores según las necesidades del lugar de plantación. En determinadas circunstancias se podrán utilizar materiales reciclables y podrán ser a veces necesarios modelos diferentes con más capacidad de sujeción, como la colocación de cables, cinchas, etc.
Se utilizarán bridas y ataduras de caucho o polietileno de 30 mm. de anchura y suficiente longitud para abrazar al tutor y al árbol. El número de bridas dependerá del

araberakoa izango da brida kopurua.
Enpresa esleipenduna arduratuko da zurkaitzak hornitu eta jartzeaz eta beharra duten aleak zutitzeaz, eta, horretarako, dagozkion ikuskatze lanak egingo ditu, esku hartu beharko balitz. Gainera, hutsuneak beteko eta lokarriak berrituko ditu, eta oker edo kaltetuta dauden zuhaitzak ondo jarriko ditu eta jada beharrezkoak ez diren haiek erretiratuko ditu, ofizioz jardunez.

Udal teknikariek ikusten badute ez direla egiten lan horiek edo beharrezkoa iruditzen bazaie beste edozein arrazoirengatik, lan horietako edozein egiteko agindu ahalko diote enpresa esleipendunari.

número de tutores.
El suministro y colocación de los tutores así como el enderezado de aquellos ejemplares que lo requieran, será responsabilidad de la empresa adjudicataria que realizará las oportunas revisiones para detectar necesidades de actuación y actuará, de oficio, reponiendo faltas, renovando ataduras y recolocando aquellos que estuvieren torcidos o dañados y retirando los que ya no sean necesarios.
Cuando los técnicos municipales detecten incumplimiento en la ejecución de estos trabajos, o cuando lo consideren necesario por cualquier otro motivo, podrán también ordenar a la empresa adjudicataria la ejecución de cualquiera de estos trabajos.

3.1.2. TXORKOAK MANTENTZEA.

Aldian-aldian, txorkoen egoera ikuskatu beharko du enpresa esleipendunak, landare elementurik izan ez dezaten eta inguruan dabiltzan oinezkoentzako seguruak izan daitezen. Eskuz garbituko ditu, salbu eta aurrez herbizida jakin bat erabiltzea hitzartzen badu udal teknikariekin.

Bereziki, txorkoak babesteko burdin sareen jarrera zainduko du enpresa esleipendunak, baita zolagain ororena eta zuhaitzetako egitura guztiena, zuhaitzen hazkundean eraginik izan ez dezaten; eraginik badute, berriz, erretiratu edo ordezkatu egingo ditu, eta erretiratzen dituen saretak udal biltegira edo udal teknikariek adierazten dioten tokira eramango ditu.
Gainera, enpresa esleipendunak lurra, pinu azala edo legarra jarri beharko du txorkoetan, txorkoak eta espaloia maila berean egon daitezen; batez ere, txorkoek saretarik ez dutenean.

Enpresa esleipenduna arduratuko da material horiek hornitzeaz eta txorkoetan egin beharreko lanak egiteaz, eta, horretarako, dagozkion ikuskatze lanak egingo ditu, esku hartu beharko balitz. Hortaz, ofizioz jardungo du zolagainaren mailatik gorako saretak erretiratzeko eta beharrezkoa duten txorkoak lurra edo beste elementu batzuk erabiliz berdintzeko.

Udal teknikariek ikusten badute ez direla egiten lan horiek edo beharrezkoa iruditzen bazaie beste edozein arrazoirengatik, egiteko agindu ahalko diote enpresa esleipendunari.

3.1.2.- MANTENIMIENTO DE ALCORQUES.

La empresa adjudicataria estará obligada a revisar periódicamente el estado de los alcorques, con el objetivo de mantenerlos limpios de elementos vegetales, y seguros para el tránsito de peatones. La limpieza se realizará manualmente, salvo acuerdo previo con el técnico municipal para la aplicación del herbicida que se determine.
La empresa adjudicataria vigilará especialmente la colocación de los enrejados de protección, y de cualquier pavimento o estructura en los árboles, de manera que no afecten al crecimiento del árbol, en cuyo caso se retirarán o se sustituirán. Las rejillas retiradas serán llevadas por la empresa adjudicataria al almacén municipal o al lugar que les sea indicado por los técnicos municipales.
Además, la empresa adjudicataria se encargará de aportar tierra, corteza de pino o grava a los alcorques con el fin de que no exista un escalón entre el mismo y el nivel de la acera, sobre todo en aquellos en los que no existe rejilla.
El suministro de estos materiales y la correcta ejecución de estos trabajos en los alcorques, será responsabilidad de la empresa adjudicataria que realizará las oportunas revisiones para detectar necesidades de actuación. Actuará por lo tanto de oficio, retirando aquellas rejillas que sobresalgan del nivel del pavimento, y enrasando con tierras u otros elementos los alcorques que lo necesiten.
Cuando los técnicos municipales detecten incumplimiento en la ejecución de estos trabajos, o cuando lo consideren necesario por cualquier otro motivo, podrán también ordenar su ejecución a la empresa adjudicataria.

3.1.3. UREZTATZEA.

Enpresa esleipendunak, oro har, gutxienez bi urtez

3.1.3.- RIEGO.

La empresa adjudicataria como norma general deberá

ureztatu beharko ditu zuhaitz gazteak eta zuhaitz-txorkoak, maiatzetik irailera astean behin, eta apirilean eta urrian hilean behin. Hala ere, lehenengo 3-5 urteetan udan ureztatu behar diren zuhaitzak zein diren zehaztuko da; kasu horretan, apiriletik urrira ureztatuko dira, hilean behin. Euria egiten badu, maiztasunak aldatu egingo dira euriaren intentsitatearen arabera, eta bero-boladetan indartu egingo da ureztatzea.
Ureztatze berezia birlandatutako zuhaiztietan. Arreta bereziz ureztatuko da birlandatutako zuhaiztia, eta kasu bakoitzaren arabera, aplikazio indibidualizatuak egingo zaizkie.
Enpresa esleipendunak ofizioz planifikatuko eta egingo ditu ureztapen lanak, aurreko paragrafoan aipatutako maiztasunarekin.
Udal teknikariek ikusten badute ez direla egiten lan horiek edo beharrezkoa iruditzen bazaie beste edozein arrazoirengatik, beharra dutela iruditzen zaien aleak ureztatzeko agindu ahalko diote enpresa esleipendunari.

regar el arbolado joven y el arbolado en alcorque durante al menos 2 años, de mayo a septiembre con una frecuencia semanal, y en abril y octubre una vez al mes. No obstante se determinarán los árboles que necesitan ser regados en verano durante los primeros 3-5 años, en este caso se regarán de abril a octubre, una vez al mes. En caso de lluvia las frecuencias se verán modificadas en función de la intensidad de la misma, y se reforzará el riego en olas de calor.
Riego especial en el arbolado trasplantado. Se regará con especial dedicación el arbolado trasplantado, al cual se le realizarán aplicaciones individualizadas según el caso.
La planificación y ejecución de estos riegos deberá de hacerse de oficio por la empresa adjudicataria, con la frecuencia descrita en el párrafo anterior.
Cuando los técnicos municipales detecten incumplimiento su ejecución, o cuando lo consideren necesario por cualquier otro motivo, podrán también ordenar a la empresa adjudicataria el riego de los ejemplares que consideren necesario.

3.1.4. ADAR HILAK KENTZEA.

Mantendu beharreko aleak ikuskatzeaz arduratuko da enpresa esleipenduna, adar hil, kaltetu edo ahuldurik balego, eta, baiezkoan, kendu egingo du.
Era berean, argi publikoak estaltzen dituzten, hondakinen bilketako edukiontziak nahiz kamerak eragozten dituzten adarrak, jabetza pribatuetan (terrazetan, lorategietan, garajeetan...) sartzen direnak edo etxeen fatxadetatik gertuegi daudenak moztuko ditu.

Enpresa esleipendunak ofizioz egingo ditu lan horiek.

Udal teknikariek ikusten badute ez direla egiten lan horiek edo beharrezkoa iruditzen bazaie beste edozein arrazoirengatik, egiteko agindu ahalko diote enpresa esleipendunari.

3.1.4.- ELIMINACIÓN DE RAMAS MUERTAS.

La empresa adjudicataria será responsable de revisar los ejemplares objeto de mantenimiento con el objetivo de detectar la presencia de ramas muertas, dañadas y debilitadas, y proceder a su eliminación.
Así mismo, la empresa adjudicataria cortará aquellas ramas que tapen el alumbrado público, que interfieran con los contenedores de recogida de residuos, con las cámaras, que entren en propiedades privadas como terrazas, jardines o garajes, y aquellas que se acerquen demasiado a las fachadas de las casas.
La empresa adjudicataria actuará de oficio en la realización de estas tareas.
Cuando los técnicos municipales detecten incumplimiento en la ejecución de estos trabajos, o cuando lo consideren necesario por cualquier otro motivo, podrán también ordenar su ejecución a la empresa adjudicataria.

3.1.5. ERORTZEN DIREN ADARRAK ERRETIRATZEA.

Haizeak edo denboraleek erorarazten dituzten adarrak, egoera txarrean daudelako erortzen direnak eta dena delakoagatik erortzen direnak lehenbailehen erretiratu beharko dira. Horretarako, enpresa esleipendunak dagozkion ikuskatze lanak egingo ditu, horrelako adarrik balego, eta, baiezkoan, erretiratu eta kudeatu egingo du, ofizioz.
Udal teknikariek ikusten badute ez direla egiten erortzen

3.1.5.- RETIRADA DE RAMAS CAÍDAS.

Las ramas caídas a causa del viento, por temporales, por encontrarse en mal estado, o por la razón que fuera, deberán ser retiradas lo antes posible. La empresa adjudicataria, con ocasión de sus inspecciones detectará la presencia de estas ramas y procederá, de oficio, a su retirada y posterior gestión.
Cuando los técnicos municipales detecten incumplimiento en la retirada de ramas caídas, o cuando lo consideren necesario por cualquier otro motivo, podrán

diren adarrak erretiratzeko lanak edo beharrezkoa iruditzen bazaie beste edozein arrazoirengatik, egiteko agindu ahalko diote enpresa esleipendunari.

3.1.6. TRATAMENDU FITOSANITARIOAK EGITEA.

Sortzen diren izurri eta gaixotasunen kontra esku hartzeko beharrezkoak diren tratamendu fitosanitarioak hornitu eta egiteaz arduratuko da enpresa esleipenduna.

Inongo tratamendurik egin aurretik, udal teknikariei jakinarazi beharko zaie badela izurri edo gaixotasun bat, tratamendu posibleei buruz beharrezkoak diren txostenak eska ditzaten, eta, ondoren, enpresa esleipenduneko teknikariek dagokion jarduketa proposatuko diete; horrela, elkarrekin erabakiko dute noiz eta nola esku hartu, tratatu beharreko landareen eta eguraldiaren arabera.

Enpresa esleipendunak laborategien aholkuei eta indarreko legediaren aginduei jarraituz egingo ditu beharrezkoak diren tratamenduak. Produktu fitosanitarioak emateko lanak egiten dituenak produktu fitosanitarioen bidezko tratamenduak egiteko pertsona eta enpresen erregistroan egon beharko du. Enpresa esleipendunaren barruan zerbitzuaren ardura duenak tratamendu egile kalifikatuaren txartela izan beharko du, eta lanak egiteko arduradunak, oinarrizko tratamendu egilearena. Enpresa esleipendunarena izango da produktu fitosanitarioak sobera edo oker emateagatiko kalteen erantzukizuna.

Lehenengo egiten den tratamenduak arrakasta duen edo porrot egiten duen, beste tratamendu bat eskatu ahalko da. Ahal dela, ematen diren produktuak “kontrol integratukoak” eta ez-toxikoak izango dira.
Landareen bizitzako uneren batean, baliteke eskasiak zuzentzeko produktuak, azido humikoak, mulcha, endoterapia... ematea komeni izatea; bada, landareentzat onak diren sasoian emango ditu enpresa esleipendunak.

3.1.7. MEDEATZEA.

Lurra mantenugai urrikoa bada, enpresa esleipendunak 10-25 kg ongarri organiko jarri beharko ditu, sustraiak ukitu gabe betiere. Alde horretatik, baliteke landare hondakinetatik sortutako eta ziurtatutako mulcha jartzea komeni izatea. Adarrei tantak isurtzen zaizkien eremuaz harago medeatu beharko da lurra.
Enpresa esleipendunak hornitu eta jarri beharko ditu ongarri organikoa zein mulcha, udal teknikarien eskariz.

también ordenar su ejecución a la empresa adjudicataria.

3.1.6.- TRATAMIENTOS FITOSANITARIOS.

La empresa adjudicataria será responsable del suministro y colocación de los tratamientos fitosanitarios necesarios para actuar contra las diferentes plagas o enfermedades que puedan surgir.
Antes de cualquier tratamiento, el técnico municipal deberá ser informado de la plaga o enfermedad existente, y solicitará los informes necesarios sobre los posibles tratamientos. Después, el técnico de la empresa adjudicataria propondrá una actuación al técnico municipal, con el fin de decidir conjuntamente el momento y tipo de actuación en función de las plantas a tratar y de las condiciones meteorológicas.
La empresa adjudicataria aplicará los tratamientos necesarios de la forma recomendada por los laboratorios y siguiendo las instrucciones de la legislación vigente. El ejecutor de los trabajos de aplicación de productos fitosanitarios deberá estar inscrito en el registro de aplicadores y empresas de tratamientos de productos fitosanitarios. El responsable del servicio de la empresa adjudicataria deberá tener el carnet de aplicador en nivel cualificado y el encargado de realizar el trabajo el carnet de aplicador nivel básico. La empresa adjudicataria será responsable de los daños causados por aplicación excesiva o errónea de productos fitosanitarios.
Podrá ser solicitado un nuevo tratamiento en función del éxito o fracaso de la primera aplicación. Los productos a aplicar serán preferentemente de “lucha integrada” y no tóxicos.
En algún momento de la vida del vegetal puede ser recomendable la aplicación de productos tales como correctores de carencias, ácidos húmicos, mulch, endoterapia etc., que serán aplicados por la empresa adjudicataria en la época adecuada para el vegetal.

3.1.7.- ENMIENDAS.

En caso de que el suelo sea pobre en nutrientes la empresa adjudicataria procederá al aporte entre 10 y 25 Kg de abono orgánico, sin que éste entre en contacto con las raíces. Un aporte de mulch, procedente de restos vegetales y certificado, puede ser recomendable. Las enmiendas deben ser incorporadas al suelo más allá de la zona de goteo de las ramas.
Tanto el abono orgánico como el mulch serán suministrados y colocados por la empresa adjudicataria, a petición de los técnicos municipales.

3.1.8. BESTE MANTENTZE LAN BATZUK EGITEA (lurra estaltzea, urratzea eta jorratzea).

Parterreetako zuhaitzen inguruan, 2 m-ko diametroko zirkunferentzia bat eratuko da, eta 10 cm zotal erretiratuko eta lurra profilatuko da, eta 10 cm lodi den mulch geruza bat jarriko da.

Txorkoetako eta parterreetako zuhaitzen oineko lurreko belar txarrak kentzeko, lurrazala urratuko da, eta eskuz jorratuko da, edo kimikoki, herbizidak erabiliz:

- Eskuz: eskuzko jorraren helburua da lurrazala hobetzea eta nahi ez diren landareak kentzea, lurra iragazkorragoa izan dadin airearekiko eta ureztapen-ura hartzeko garaian. 12 bat zentimetroko sakonerarainо lan egingo da, esku erremintak erabiliz eta landareen sustraiei kalte ez egiteko arreta berezia jarriz; desegokitzat joko da makineria erabiltzea. Gainera, lurra eskuaretuko da, kendutako landareak eta beste hondakin batzuk erretiratzeko eta gainazala berdintzeko.

-Kimikoa: salbuespen gisa, kimikoki ere jorratu ahal izango da lurra, herbizidak erabiliz. Udal zerbitzu teknikoek nola aplikatu, zer produktu eta dosi eman eta nola eman baimendu beharko dute.

Irizpide orokor gisa, txorkoak jorratzeko lana ez du enpresa esleipendunak egingo, baina udal-teknikariek eskatuta egin ahal izango da.

3.1.8.- OTRAS LABORES DE MANTENIMIENTO (Acolchados, entrecavado y escarda).

En algunas ocasiones, en las que así se considere en los árboles situados en parterres, se creará una circunferencia alrededor del árbol de dos metros de diámetro que incluye la retirada de 10 cm de tepe de hierba, perfilado y aporte de mulch a razón de 10 cm. de espesor.
Las malas hierbas se eliminarán del suelo, en la base del arbolado en alcorques y en parterres, mediante entrecava superficial y escarda manual o química mediante herbicidas.

-Manual: su objetivo es mejorar la superficie del terreno y eliminar la vegetación indeseada para mejorar la permeabilidad del suelo al aire y a la captación de agua de riego, la profundidad de la labor será de unos 12 cm y se realizará con herramientas manuales prestando especial atención en evitar daños en las raíces de las plantas, quedando contraindicado la utilización de maquinaria, se completará con un rastillado del terreno con objeto de retirar la vegetación desechada y otros restos y uniformizar la superficie.
-Química: con carácter extraordinario la escarda también podrá realizarse mediante la utilización de herbicidas, sus aplicaciones, productos y dosis deberán ser autorizados por los servicios técnicos municipales.

Como criterio general la labor de escarda de los alcorques no será realizada por la empresa adjudicataria, aunque podrá ser ejecutada a petición de los técnicos municipales.

3.2. INAUSTEA.

Inausketa lanen helburua mantendu beharreko zuhaitz guztien artetik beharra duten aleetan esku hartzea da. Salbuespenezko eta behar bezala justifikatutako kasuetan bakarrik egingo dira inausketa lan drastikoak.
Urtero zehaztuko da zer ilara edo aletan esku hartuko den, udal teknikarien eta enpresa esleipenduneko arduradunen arteko bilera batean. Era berean, lanak egiteko behin-behineko programa eta egutegia zehaztuko dira bilera horretan.
Atal honek aipatzen dituen inausketa lan guztiak egiteko, aurrez, udal teknikariek oniritzia eman beharko diete uneari, inausiko diren ale eta ilarei, inausketa lanen norainokoari, inausketa motari, inausketa lanak egiteko moduari...

Ordainketa.
Atal honek aipatzen dituen inausketa lan guztiak

3.2.- PODA.

La labor de poda tendrá como objetivo actuar en aquellos ejemplares de la totalidad del arbolado a mantener, que lo necesiten. Las podas drásticas sólo se realizarán en casos excepcionales y debidamente justificados.
Las alineaciones o individuos aislados sobre los que se vaya a actuar se establecerán anualmente en una reunión entre los técnicos municipales y el responsable de la empresa adjudicataria, en la que se fijará el programa provisional de trabajos, y el calendario del mismo.
Todas las podas a las que hace referencia este apartado 3.2. se realizarán tras el visto bueno de los técnicos municipales en cuanto al momento, ejemplares o alineaciones afectadas, alcance, tipo de poda, forma de ejecución, etc.

Pago.
El abono de todos los trabajos de poda descritos en el

ordaintzeko, hilabete bakoitzeko ziurtagiriak hartuko dira kontuan: egiaz egiten diren lanen neurketen emaitzak, esleipendunak berauek egiteko eskainitako prezioetan. Kontratuaren indarraldi osoan, enpresa esleipendunak eskaintzen dituen prezio unitarioak egongo dira indarrean, salbu eta mantentze lanei dagokienez; esan bezala, mantentze lanak ordaintzeko, ziurtagiri bakoitzaren zenbatekoaren ehuneko bat ordainduko da.
Eskaini beharreko prezioen zerrenda (lan bakoitza egiteko prezio unitarioak) baldintza administratibo partikularren pleguaren II ERANSKINEAN dator, *proposamen ereduari* atxikita; neurketa zenbatetsi batzuk dakartza zerrenda horrek, balorazio ondorioetarako bakarrik.

Inausketa lanak egiteko garaiak.
Inausketa lan gehienak zuhaitzen hazkunde garai osoan egin daitezke, salbu eta begiak zabaltzeko eta hostoak erortzeko garaian, zuhaitzek zuntza galtzen baitute eta izerdia jaitsi egiten baita orduan. Era berean, izotza egiten duen egunetan eta , oro har, tenperatura 5 ºC-tik beherakoa den egunetan, bertan behera utziko dira inausketa lanak.
Udako kimaketa lanak ekain hasieratik urri erdialdera bitartean egingo dira nahitaez.
Oro har, hosto erorkorreko zuhaitzak atseden garaian inausiko dira; hosto iraunkorrekoak, udaberrian hazten hasten direnean eta hosto eta azikulak eratutakoan; eta *Prunus* generokoak eta zehazten diren beste errosazeo batzuk, uda erdialdean, gaixotasun arriskua ahal bezainbat txikitzeko.
Acer generoko zuhaitzak eta urkiak udaberrian kimatuko dira, behin hostoak eratutakoan.

Ebakiak egiteko modua.
a) Adarrak kentzeko ebakiak
Ahal dela, ez da kenduko 10 cm-tik gorako diametroko adarrik.
Inausketa ebakiek garbiak izan beharko dute, inausketa puntu naturaletan egin beharko dira, eta ura inola ere ez gelditzeko moduan orientatu beharko dira. Alde horretatik, ebakirik zuzenena adarren lepokotik ahalik eta gertuen egiten da, beroni kalte egin gabe eta berau kendu gabe eta, aldi berean, adarren azaleko zimurra errespetatuz. Ez dago ebakia zuzen egiteko angelu finkorik: Inausketarako Europako Estandarra, Lorezaintza eta Paisajismo Arau Teknologikoak eta Alex L. Shigoren bibliografia kontsultatu beharko dira. Sahats buru motako inausketa lanak, motzondoak inaustekoak eta kimu berriak aukeratzekoak egiteko, adarren lepokoa eta adarren azaleko zimurra errespetatu beharko dira. Adar hilak edo motzondoak kentzean, ahal dela, egur osasuntsuzko oinarria eta eraztun orbaintzailea ez dira eraldatuko inola ere.

presente apartado se hará a través de las certificaciones mensuales, calculadas con las mediciones de los trabajos realmente ejecutados, a los precios ofertados por la empresa adjudicataria. Serán los precios unitarios ofertados por la misma, los que regirán a lo largo del contrato para la ejecución de los trabajos, exceptuando las labores de mantenimiento que como hemos explicado en el punto anterior, se abonarán mediante un porcentaje aplicado al importe de cada certificación.
La relación de precios a ofertar figura en el ANEXO II al PCAP *"Modelo de proposición"*, que recoge las precios unitarios que regirán para la ejecución de cada trabajo. En esta relación se indican unas mediciones estimadas, únicamente a efectos de valoración.

Épocas de poda
La mayoría de los trabajos de poda pueden realizarse en la totalidad del periodo vegetativo con la excepción de las épocas de la apertura de yemas y la caída de las hojas (desborre y descenso de la savia). Los trabajos de poda se suspenderán en días de heladas y en general cuando la temperatura sea inferior a 5ºC.
Los trabajos de poda en verde se realizarán obligatoriamente desde principios de junio hasta mediados de octubre.
Por regla general los árboles de hoja caduca se podarán en época de reposo y los de hoja persistente cuando empiezan a crecer en primavera y una vez formadas las hojas y acículas, los Prunus y otras rosáceas que se determinen serán podados a mediados de verano, para reducir al mínimo los riesgos de enfermedad.
Los Acer y Abedules se podarán en primavera una vez que las hojas hayan terminado de formarse.

Modo de ejecución de los cortes.
a) Para la eliminación de una rama.
Se evitará la eliminación de ramas mayores de 10 cm de diámetro.
Los cortes de poda deberán ser limpios y netos, por los puntos naturales de poda y orientados de tal forma que se evite todo estacionamiento del agua. El corte correcto se sitúa lo más cerca posible del collar de la rama sin dañarlo ni eliminarlo y respetando así mismo la arruga de la corteza de la rama. No hay ángulo fijo para un corte correcto. Consultar el Estándar Europeo de Poda, NTJP (Normas Tecnológicas de Jardinería y Paisajismo) así como la bibliografía de Alex L. Shigo.
Cualquier intervención de poda sobre cabezas de sauce, muñones, selección de rebrotes se hará respetando tanto el collar como la arruga de la corteza de la rama. Al eliminar una rama muerta o un muñón se evitará cualquier alteración de la base de madera sana o anillo cicatrizador.

b) Adarrak laburtzeko ebakiak

Alboko adarren axilan egingo dira beti; horrela, alboko adarrek ebaki nahi diren adarren luzakinarena egingo dute, orbaintzea hobea izango da, eta motzondo gutxiago agertuko dira. Alboko zer adar ebaki aukeratzeko, inaustariak zer-nolako eitea erabakitzen duen hartuko da kontuan. Aukeratzen diren alboko adarren diametroa ebaki beharreko adarren diametroaren heren bat – erdia izango da gutxienez.

Hazkundea erregulatzeko inausketa lanak egiteko, behin hostoak erabat garatu arte itxoitea da egokiena. Ebaki guztiak adarren elkarguneetan egingo dira, azaleko zimurra kendu gabe. Zuhaitz gazteetan, tantai zentrala sendoa izan dadin, adar behereak hiru urtean laburtuko dira, erabat kendu arte; horrela, lurretik 2'50-3 m-raino gutxienez, adarrik gabe utzi beharko da enborra.

b) Para la reducción de una rama.

El corte para reducir la longitud de una rama será efectuado siempre en la axila de una rama lateral que cogerá la función de prolongación de la misma, de esta forma se favorece la cicatrización y se reduce la aparición de muñones. La elección de la rama lateral sobre la que se va a efectuar el corte dependerá del porte decidido por el podador. El diámetro de la rama lateral seleccionada será al menos de 1/3 a la mitad del diámetro de la rama seccionada.

El momento más adecuado para esta poda de regulación del crecimiento es una vez que las hojas se han desarrollado plenamente. Todos los cortes se realizarán en las uniones de las ramas sin eliminar la arruga de la corteza. En el caso de árboles jóvenes y para conseguir una guía central fuerte las ramas bajas se acortarán en un proceso de tres años hasta la total eliminación para formar un tronco libre de ramas hasta una altura mínima de 2'50 a 3 m.

c) Adar astunak eta diametro handikoak inausteko ebakiak

Ezinbestekoa da adarrak zatitan moztea, adarren pisuak azala edo egurra ez urrarazteko eta, horrela, zuhaitzei kalte ez egiteko. Ondasunik badago zuhaitzen zapian, sokak erabiliko dira adar astunak jaisteko, lagungarri.

c) Corte de una rama pesada o de gran diámetro.

En el caso de una rama pesada es imprescindible cortarla en trozos sucesivos para evitar que el peso de las mismas produzca desgarros de corteza o de madera perjudiciales para el árbol. Ante la presencia de bienes bajo los árboles, el descenso de ramas pesadas se efectuará con ayuda de cuerdas.

Materialak.

Oro har, adarrak mozten direnean, ez da inongo produktu orbaintzailerik emango, salbu eta zirkunstantzia bereziak direla-eta beharrezkoa bada.

Inausketa lanak behar bezala egiteko erreminta eta materialik egokienak erabili beharko ditu enpresa esleipendunak, baita bere langileen eta hirugarrenen segurtasuna bermatzeko eta ingurunea babesteko egokienak direnak.

Oro har, prestakuntza bileraren ondoren, enpresa esleipendunak inausketa lanetarako erabili asmo duen materiala erakutsiko dio Udal Lorezaintza Zerbitzuari, hark onar dezan.

Inausketa lanak egiteko lanabesak egunero zorroztuko dira, eta erabilera bakoitzaren aurretik desinfektatuko dira, adarrik urra eta gaixotasunik heda ez dezaten. Horretarako, lanabesak bi zuhaitzen artean desinfektatzeko ontziez hornituko dira eskailerak.

Materiales.

Por regla general ante el corte de una rama no se aplicará ningún producto cicatrizante, salvo que por circunstancias especiales sea recomendable su uso.

La empresa adjudicataria deberá utilizar la herramienta y material que mejor se adapte a la buena ejecución de los trabajos de poda, así como a la seguridad de su personal, de terceros y a la salvaguarda del medio.

De forma general la empresa adjudicataria mostrará al Servicio de Jardinería Municipal para su aceptación el material que piensa utilizar en la ejecución de los trabajos tras la reunión preparatoria.

Los útiles de poda serán diariamente afilados y desinfectados antes de cada intervención para evitar desgarros de ramas y propagación de enfermedades. Para ello las escaleras estarán equipadas con recipientes que permitan la desinfección de los útiles de poda entre dos árboles.

a) Ezproien erabilera

Zuhaitzetara igotzeko, debekatuta dago hortz, kranpoi edo ezproirik erabiltzea. Enpresa esleipendunak inola ere ezingo du zuritu horrelakoen erabilera bere langileek gaitasun nahikorik ez dutela argudiatuta.

Udalak ikusten badu enpresa ez dela agindutako lanak

a) Uso de espuelas.

Queda prohibida la utilización de púas, crampones o espuelas para la trepa a los árboles. La empresa adjudicataria en ningún caso podrá poner como pretexto su uso por falta de competencia de su personal.

egiteko gai, beste enpresa bati esku harrarazteko eskubidea izango du, enpresa esleipendunaren kontura, lanak landareei kalterik egiten ez dieten bitartekoak erabiliz egin ditzan.

El Ayuntamiento se reserva el derecho de hacer intervenir a una tercera empresa; a costo de la empresa adjudicataria; para efectuar estos trabajos por medios no agresivos para el vegetal si se detecta incompetencia de la empresa para la realización del trabajo encomendado.

b) Landare hondakinak txikitzeko makina

Landare hondakinak zatikatzeko makina bat erabili beharko da, hondakinak zuzenean edo konpostatuta udal instalazioetan edo zehazten diren beste instalazio batzuetan erabili ahal izateko.

b) Picadora de restos vegetales.

Se deberá utilizar una máquina de trocear restos vegetales para su posterior utilización bien directamente o una vez compostado, en instalaciones municipales u otras que se determinen.

3.2.1. Zuhaitz gazteak formatzeko inausketa.

Al finalizar una obra que hubiere afectado al arbolado público urbano objeto de este contrato, los técnicos municipales podrán solicitar a la contrata informe al respecto del estado del arbolado.

3.8.5. Beste ikuskatze lan batzuk.
Aipatutako ikuskatze lanez gain, eskatzen zaionean, herritarren eta Udaltzaingoaren abisu eta kexek aipatzen dituzten zuhaitzak ikuskatu beharko ditu enpresa esleipendunak, baita udal teknikariek agintzen dizkiotenak.

3.8.5.- Otras inspecciones.
Además de las inspecciones anteriores, cuando así se le traslade, la empresa adjudicataria deberá de inspeccionar el arbolado objeto de avisos ciudadanos, avisos de la policía municipal, quejas, u órdenes de trabajo que les sean trasladadas por los técnicos municipales.

3.8.6. Ikuskatze lanei buruzko txostenen ordainketa.

Hala egitea beharrezkoa denean egindako ikuskatze lanei buruzko txostenak (arrisku egoeran dauden zuhaitzen ikuskatze lanei buruzkoak, denboraleen ondorengo ikuskatze lanei buruzkoak, obren ondorengo ikuskatze lanei buruzkoak, hirugarrenek plegu honen *3.9 Arriskuan dauden zuhaitzen kudeaketa* puntuari jarraikiz egiten dituztenak...) ordaintzeko, hilabete bakoitzeko ziurtagiriak hartuko dira kontuan: egiaz egiten diren lanen neurketetatik abiatuz eta kontratuaren esleipendunak eskainitako prezioen arabera kalkulatuta.

3.8.6.- Abono de los informes relativos a las inspecciones.
El abono de los trabajos de elaboración de los informes relativos a las inspecciones que así lo requieran (informes de las inspecciones al arbolado de riesgo, informes de las inspecciones tras los temporales, informes de las inspecciones tras las obras, informes redactados por terceros según punto *3.9 Gestión del arbolado de riesgo* de este pliego, etc.), se realizará a través de las correspondientes certificaciones mensuales, calculadas a partir de las mediciones realmente ejecutadas y los precios ofertados por la empresa adjudicataria del contrato.

3.9. ARRISKU EGOERAN DAUDEN ZUHAITZAK KUDEATZEA.

Kontratua sinatu eta hiru hilabetean, ematen dioten inbentarioaren arabera arrisku egoeran dauden zuhaitzak aztertuko ditu enpresa esleipendunak, eta aleen egoerari buruzko txosten bat aurkeztuko dio Udal Lorezaintza Zerbitzuari.
Txosten horren bidez, inbentarioa eguneratuko du, informazio geografikoko sistemaren bidez, eta kontratua indarrean dagoen bitartean "*arrisku egoeran dauden zuhaitzak mantentzeko plana*" proposatuko du.
Kontratua indarrean dagoen bitartean, arrisku egoeran dauden zuhaitzen zerrenda "bizirik" egongo da, eta enpresa esleipendunak eguneratu egin beharko du, nahitaez, sei hilabetean behin eta zerrendako aleen kopuruan edo egoeran aldaketaren bat gertatzen den bakoitzean (bajak, altak, arrisku motaren sailkapena).

Udal teknikariei eguneratze guztien berri emango zaie, eta zuhaitzen egoerari eta egindako jarduketei buruzko txosten

3.9.- GESTIÓN DEL ARBOLADO DE RIESGO.

Al comienzo del contrato, en el plazo de 3 meses desde la firma del mismo, la empresa adjudicataria realizará un estudio del arbolado catalogado como de riesgo en el inventario que le habrá sido facilitado, y presentará un informe del estado de los ejemplares al Servicio de Jardinería Municipal.
Este informe incluirá su actualización, a través del SIG, y un "*Plan de Mantenimiento del arbolado de Riesgo"* para su correcto mantenimiento a lo largo de la vida del contrato.
El catálogo de arbolado de riesgo permanecerá "vivo" a lo largo de la vigencia del contrato, y será actualizado obligatoriamente por la empresa adjudicataria cada 6 meses, así como cada vez que se produzca una modificación en el número, o estado de los ejemplares catalogados (bajas, altas o cambios en la clasificación del tipo de riesgo).
Se avisará de todas las actualizaciones efectuadas en el mismo a los técnicos municipales, y se entregará un

bat aurkeztuko da, sei hilabetean behin.

Aurreko atalean azaldutako ikuskatze lanen bidez, azterketa sakonagorik egin behar den ikusiko da; tartean, beharrezkoa bada, azterketa instrumentalak (sustraien tree radar ikuskatzea, sustrairik baden eta, baiezkoan, sustraiak nola banatuta dauden ikusteko; tomografo sonikoa; inpedantzia elektrikoko tomografoa; edo erresistografoa).

Era berean, kasu zailetan eta udal teknikariek eskatzen dutenean, baliteke enpresa esleipendunak enpresa espezializatuak kontratatu behar izatea, ale jakin batzuen egoerari eta arrisku mailari buruzko txostenak egin ditzaten.

Txostenek zehazten dutenean esku hartuko da ale guztietan, udal teknikarien oniritzia izanik, bi helburu lortzeko betiere: arriskua minimizatzea eta, ahal den neurrian, zuhaitzen osotasunari eustea.

informe del estado del arbolado y de las actualizaciones realizadas, cada 6 meses.
A través de las diversas inspecciones descritas en el apartado anterior, se detectará la necesidad de estudios más profundos, incluidos estudios instrumentales si fuera necesario (inspección radicular tree radar para determinar la existencia y distribución de las raíces, tomógrafo sónico, tomógrafo de impedancia eléctrica o resistógrafo).

Así mismo, podrá ser necesaria en algunos casos más delicados o difíciles, y cuando así lo soliciten los técnicos municipales, la contratación, por parte de la empresa adjudicataria, de empresas especializadas que emitan informe del estado y de evaluación de riesgo de determinados ejemplares.
Se actuará en todos estos ejemplares cuando así lo determinen los informes emitidos, con el visto bueno de los técnicos municipales, y siempre con el doble objetivo de minimizar el riesgo y mantener en lo posible la integridad del arbolado.

3.10. INFORMAZIOA MANTENTZEA: INBENTARIOA EGITEA ETA LANAK KUDEATZEA.

Udalak kudeaketarako bi tresna ditu, eta horiek erabiltzen jarraituko du kontratuan zehar. Enpresa lizitatzaileek inbentarioa kudeatzeko, mantentzeko eta eguneratzeko aplikazioak aurkeztu ahal izango dituzte, halakorik izanez gero. Aplikazio horiek, kudeatutako datuekin batera, Udalaren jabetzakoak izango dira uneoro.

- Inbentario-sistema. ArcGis Online: kontsulta eta argitalpena.
- Ingrid kudeaketa-sistema; zerbitzu berria abian jartzeko, azken bertsioaren eta inbentarioaren arabera eguneratu beharko da.

Enpresa esleipendunak, beraz, ezingo du beste tresna batzuetara aldatzeko prozesua hasi udal-teknikarien oniritzirik gabe, haiek markatuko baitituzte kudeaketarako jarraibideak, irismena eta baldintzak, eta proposatutako sistema onartuko dute ala ez.

Udala izango da lan-sistemen ezaugarriak eta irismena zehaztuko dituena, eta haien gastu guztiak, kudeaketa, mantentzea eta eguneratzea kontratuaren enpresa esleipendunaren kontura izango dira.

Inbentario-sistema eta kudeaketa-aplikazioen bidezko lanen kudeaketa eguneratzeko lan hori enpresa esleipendunak bere eskaintzan deskribatu beharko du,

3.10.- MANTENIMIENTO DE LA INFORMACIÓN: INVENTARIO Y GESTIÓN DE LOS TRABAJOS.

El ayuntamiento dispone de dos herramientas de gestión que continuará utilizando a lo largo del contrato pudiendo las empresas licitadoras en caso de que dispongan, presentar sus aplicaciones de gestión, mantenimiento y actualización del inventario que serán, junto con los datos gestionados, en todo momento propiedad del Ayuntamiento.

- Sistema de inventario. ArcGis Online: consulta y publicación
- Sistema de gestión Ingrid, que para la puesta en marcha del nuevo servicio deberá ser actualizado a la última versión e inventario.

La empresa adjudicataria no podrá por lo tanto iniciar el proceso de cambio a otras herramientas sin contar con el visto bueno de los técnicos municipales, que serán quienes marquen las pautas, alcance y condiciones de gestión y aceptarán o no es sistema propuesto.

Será el Ayuntamiento quien define las características y alcance de los sistemas de trabajo, corriendo todos los gastos, gestión, mantenimiento y actualización de los mismos por cuenta de la empresa adjudicataria del contrato.
Esta labor de actualización del sistema de inventario y de la gestión de los trabajos a través de las aplicaciones de gestión, deberá venir descrita por la empresa

eta nola egingo den eta zer baliabide material, giza baliabide eta baliabide tekniko erabiliko diren zehaztu beharko du.
Enpresa esleipendunak beharrezko prestakuntza eman beharko die bere teknikari eta langileei, kudeaketa-aplikazioen maila operatiboan eta konfigurazioan ezagutza osoa eskuratzen dutela bermatzeko.

adjudicataria en su oferta, detallando cómo se va a realizar y con qué medios materiales, humanos y técnicos.
La empresa adjudicataria deberá impartir a sus técnicos y operarios la formación necesaria para garantizar que adquieran un completo conocimiento tanto a nivel operativo como de configuración de las aplicaciones de gestión.

3.10.1. Inbentarioa egiteko sistema.
Plegu honen arabera kudeatu beharreko entitate guztien (zuhaitzen eta kudeaketa unitateen) inbentarioa egingo da, grafikoa zen alfanumerikoa, eta, horretarako, delineazio tresnak erabiliko dira. Udalak egungo egoeran entregatuko dio inbentarioa enpresa esleipendunari, eta aplikazio berria web ingurunetik eta Desktopetik erabili ahalko da.

Internetera konektatutako tableta, sakelako edo eramangarri batetik sartu ahalko da web ingurunera; zehazki, ArcGis Online bat izango da.
Enpresa esleipendunak ArcGis Online aplikazioaren gainean eguneratuko du inbentarioa. Aplikazio horretan, Udalak lan hori egiteko eskuragarri duen informazio guztia lotuko du. Inbentarioa behar bezala eguneratzeko, ezer baino lehen, inbentarioa eguneratzeko datuen eredua ezarriko da, besteak beste, altak, bajak, espezieen zuzenketa, altuera, zabalera; beste funtzionalitate batzuk gaituko dira, hala nola ziurtapena egiteko jarduketak, inausketaren aurreikuspena, landaketaren aurreikuspena, ureztatze-katalogoa eta aldaketak, historikoak ere kontuan hartuta.

Kontratu hau indarrean dagoen bitartean, enpresa esleipendunak egunean izan beharko du udal inbentarioa egiteko sistemako informazioa, eta estekatutako entitateen informazio grafiko eta alfanumerikoa mantendu beharko du.
Ereduak kontratua indarrean sartu eta **hiru hilabetean** egon beharko du erabat martxan. Inolako bateraezintasunik badago edo eredua kudeaketa sistemaren azken eredura egokitu behar bada, kontrataren kontura izango dira lanak; azkenean, plegu honek arautzen dituen elementuen inbentarioa egiteko eta haiek kudeatzeko datu eredu bakarra izan beharko da.
Lurraldean aldaketarik badago eta horren ondorioz kudeaketa unitateak aldatzen badira edo mantendu beharreko kudeaketa unitate berriak sartzen badira, enpresa esleipendunak inbentarioa aldatu beharko du; landatzen diren zuhaitzen eta/edo bajen inbentarioari buruzko datuak (kokalekua eta datuak) bildu beharko ditu, eta inbentarioa egiteko sisteman sartu.
Datuak eguneratzen ez badira eta/edo Udalak horren inguruan eskatzen duen dokumentazioa entregatzen ez

3.10.1.- Sistema de inventario.
En este sistema se inventariarán todas las entidades objeto de gestión de este pliego (árboles y unidades de gestión), tanto a nivel gráfico como alfanumérico, incluyendo para ello herramientas de delineación. Esta parte será entregada en su estado actual por el Ayuntamiento a la empresa adjudicataria, y será utilizada desde un entorno web y Desktop.
Al entorno web se puede acceder desde una tableta, móvil, o portátil con conexión a internet. Concretamente, se tratará de un Arc Gis Online.
El inventario será actualizado por la empresa adjudicataria sobre la aplicación ArcGis Online en la que el Ayuntamiento vinculará toda la información que tenga disponible para llevar a cabo dicho trabajo. Para realizar correctamente la actualización del inventario, antes de nada, se implantará el modelo de datos para la actualización del inventario, entre otros, altas, bajas, corrección de especies, altura, anchura, se habilitarán otras funcionalidades como las actuaciones para la certificación, la previsión de poda, la previsión de plantación, catálogo de riego y modificaciones, teniendo en cuenta también los históricos.
Durante la vigencia del presente contrato, la empresa adjudicataria deberá mantener actualizada la información en el sistema de inventario municipal, debiendo mantener la información gráfica y alfanumérica de las entidades vinculadas.
Este modelo tendrá que estar en pleno funcionamiento **3 meses** después del comienzo de la vigencia del contrato. Cualquier incompatibilidad o adaptación de este modelo al modelo final de sistema de gestión irá a cargo de la contrata, debiéndose contar con un único modelo de datos para el inventariado y gestión de los elementos objeto de este pliego.
Las alteraciones de territorio que conlleven modificaciones de unidades de gestión o la introducción de unidades de gestión nuevas objeto de mantenimiento, serán modificadas en el inventario por la empresa adjudicataria, que deberá tomar los datos relativos al inventario de plantación y / baja (ubicación y datos), e introducirlos en el sistema de inventario.
La falta de actualización de los datos y/o la falta de entrega de la documentación que el Ayuntamiento solicite

bada, arrazoi nahikoa izango da dagokion ziurtagiriaren ordainketa atzeratzeko.
Inbentarioan jasotako datuak Udalaren jabetzakoak izango dira une oro, baita kontratua bukatutakoan ere.

3.10.2. Kudeaketa sistema.

Gaur egun, mantendu beharreko zuhaitzetan esku hartzeko lanak kudeatzeko, aplikazio informatiko bat darabil Udalak. Tresna horretan ziurtapena lotuta dago abisuen kudeaketarekin (lan-aginduak eta programatutako zereginak). Aplikazio informatikoa INGRID da. Enpresa esleipendunak kudeaketa-sistemaren bat badu, honako alderdi hauek izan beharko ditu kontuan gutxienez:

- Web tresna bat izango da, udal sistemaren barruan ostatatua bere osotasunean.
- Mantentze lan guztiak eta plegu honen 1. puntuan zerrendatutako lan guztiak jaso beharko ditu.
- Herritarren abisuak edo esku hartzeko aginduak sartzen direnetik lanak ziurtatzen diren arte egiten diren lan guztiak (tartean, kontrataren ebaluazio eta diagnostikoa, lanen eta berauek egiteko aurrekontuaren onarpena eta lanak beraiek) kudeatzeko balio beharko du.
- Mantendu beharreko elementuei buruzko txostenak egiteko aukera eman beharko du.
- Datu historikoak kudeatuko ditu.
- “Laneko egunkaria” kontrolatuko du, eta, egunero, datu hauek bilduko ditu enpresak:
  - Egun bakoitzerako aurreikusten dituen lanen izaera eta norainokoa
  - Eguraldia
  - Ezbeharrak, sareen matxurak, lanen bilakaeran eragina duen beste edozein gorabehera.
  - Egiaz egindako lanak

Kontratuaren hasieran, enpresa esleipendunak eguneratu egingo du kudeaketa-aplikazioa (INGRID) merkatuan dagoen azken bertsiora, udalarentzako kosturik gabe, eta funtzionaltasunean hobekuntzak ere ezarriko ditu.

4. ZERBITZUAREN KUDEAKETA.

4.1. ENPRESAREKIKO HARREMANAK.

4.1.1. Enpresaren ordezkaritza.

al respecto, será motivo suficiente para posponer el abono de la certificación que corresponda.
Los datos recogidos en el inventario serán en todo momento y también al finalizar el contrato, propiedad del Ayuntamiento.

3.10.2.- Sistema de gestión.

En estos momentos, el Ayuntamiento trabaja con una aplicación informática para gestionar los trabajos que se realizan sobre el arbolado a mantener. En dicha herramienta se asocia la certificación con la gestión de avisos, (ordenes de trabajo y tareas programadas). La aplicación informática es INGRID, en el caso de que la empresa adjudicataria disponga de un sistema de gestión deberá como mínimo contar con los siguientes aspectos:

- El sistema de gestión será una herramienta web alojada íntegramente dentro del sistema municipal.
- Deberá registrar todas las labores de mantenimiento y todos los trabajos enumerados en el primer punto de este pliego.
- Permitirá gestionar los trabajos desde que entra el aviso ciudadano o la orden de trabajo, pasando por la evaluación y diagnóstico de la contrata, la aprobación de los trabajos y su presupuesto, su ejecución y su certificación.
- El sistema permitirá obtener informes sobre los elementos a mantener.
- El sistema realizará la gestión del histórico.
- El sistema llevará un control del diario de trabajo recogiendo cada día los siguientes datos:
  - Naturaleza y alcance del trabajo previsto para ese día
  - Condiciones atmosféricas
  - Accidentes, averías a las redes, cualquier otra incidencia que repercuta en la marcha de los trabajos.
  - Trabajo realmente ejecutado.

Al inicio del contrato la empresa adjudicataria actualizará la aplicación de gestión (INGRID) a la última versión que esté en el mercado sin coste para el ayuntamiento, así como la implementación de mejoras en su funcionalidad.

4.- GESTIÓN DEL SERVICIO.

4.1.- RELACIONES CON LA EMPRESA.

4.1.1.- Representación de la empresa.

Lanak behar bezala egiten direla ziurtatzeko, enpresak ordezkari gaitu bat izendatu beharko du; ahal dela, esleipenaren iraunaldi osorako.
Ordezkari horrek erabakimen nahikoa izan beharko du enpresan, bere kabuz kontratu honek arautzen dituen ohiko eta ezohiko lanak egiteko beharrezkoak diren bitartekoak erabil daitezen agindu edo konprometitzeko adinakoa betiere.

Ordezkariak lanak agintzeko ezaupide edo gaitasun nahikorik ez duela frogatzen bada edo lanek behar bezala aurrera egitea eragozten duen beste ezaugarriren bat duela antzematen bada, Udal Zerbitzu Teknikoek hura ordezkatzeko eskatu ahal izango dute, eta enpresak hamabost egunean erantzun beharko du.

Para asegurar la correcta ejecución de los trabajos, la empresa designará a un representante competente, que a ser posible será el mismo durante la totalidad del periodo de adjudicación.
Deberá contar con la suficiente capacidad de decisión dentro de la Empresa como para ordenar o comprometer por sí mismo la disponibilidad de medios necesarios para la ejecución de los trabajos habituales y excepcionales referidos al presente Contrato.
En caso de la reiterada demostración de falta de conocimientos o falta de capacidad para ordenar los trabajos o cualquier otra circunstancia que suponga una rémora en el normal desarrollo de los mismos, por los Servicios Técnicos Municipales, podrá ser solicitada su sustitución y la Empresa deberá responder en el plazo de quince días.

4.1.2. Bilerak.

a) Aurretiko bilera
Kontratua hasten denean, lanak hasi aurretik, udal arduradunek bilera batera deituko dute, egin beharreko lanak zehazteko, baita erabilgarri dauden giza baliabide eta baliabide mekanikoak, esku hartu beharreko lekuak eta zona berriak, beste zerbitzu batzuetan izan daitezkeen ondorioak, lanak egiteko plangintza eta bisitak egiteko aurreikusten den egutegia.
Ondoren, hartutako erabakiei buruzko txosten bat egingo da.

b) Lan bilerak
Udal teknikariek zehazten dituzten egun eta orduetan egingo dira, bisitatu beharreko leku kopuruaren eta martxan dauden lanen kopuruaren arabera.
Enpresak atzerapen edo ezintasun ororen berri eman beharko du, eta, behin baino gehiagotan ordu erdi baino gehiago atzeratzen bada, zigorra jarri ahalko zaio.
Lan bileretan parte hartzeaz gain, udal arduradunen deialdi orori erantzun beharko dio enpresak.
Lan jakin bat egin aurretik, bilera batera deitu ahalko da, lantokira bertara, eta, garrantziaren arabera, txosten bat eskatu enpresa esleipendunari.

Kaleko zuhaitzak edo zuhaitz multzo handi bateko aleak inausteko lan programatuei dagokienez, bilerak aldian-aldian egingo dira, aldizkakotasun jakin batekin, lanak hasi aurretik eta bukatu ondoren.
Ohiko programaziotik kanpoko gorabehera eta aginduei

4.1.2.- Reuniones.

a) Reunión previa.
Al inicio del contrato, se convocará una reunión por los responsables municipales antes de comenzar los trabajos, para precisar las labores a realizar, los medios humanos y mecánicos disponibles, los lugares de intervención y ampliación de zonas nuevas, las afecciones posibles a otros servicios, la planificación de los trabajos y el calendario de visitas de servicio previstas.
Tras esta reunión previa se redactará un informe de los acuerdos alcanzados.

b) Reuniones de trabajo.
Se llevarán a cabo el día y la hora fijada por el técnico municipal y será en función del número de lugares a visitar y de la cantidad de trabajos en marcha.
La Empresa está obligada a avisar de todo retraso o imposibilidad. Cualquier retraso reiterado superior a media hora puede ser objeto de sanción.
Estas reuniones de trabajo no dispensan a la Empresa de acudir a cualquier convocatoria por parte de los responsables municipales.
Antes de la realización de un trabajo se podrá convocar una reunión en el lugar de trabajo y según la importancia solicitar un informe a la empresa adjudicataria.

En los trabajos de poda programada de arbolado se establecerá una periodicidad de reuniones, para la poda en calles o para un grupo de árboles importantes y la reunión será de principio y final de trabajo.
Los avisos de incidencias y encargo de trabajos fuera de

erantzuteko lanak kudeaketa sistemaren bitartez jakinaraziko zaizkio enpresari, posta elektronikoaren bidez edo telefonoz, eta enpresak erantzun, eta, aplikazioan, eskatzen zaizkion datuak eman beharko ditu, eta, inongo jarduketarik proposatzen badu, aurrekontua adierazi.
Enpresa esleipendunarentzako jakinarazpenak kudeaketa sistema informatikoaren bidez, telefonoz edo posta elektronikoaren bidez helaraziko dira; martxan ez baditu, enpresa esleipendunak ordezko bide bat eskaini beharko du berarekin harremanetan jartzeko.
Telefono bidezko jakinarazpenetarako, enpresa esleipenduneko teknikarien artean ardura duenaren telefono zenbakia eman beharko da, eta, ez dagoenean, ordezkoa nor den jakinarazi beharko zaio Udal Lorezaintza Zerbitzuari, komunikazioa egokia dela ziurtatzeko.

la programación habitual se notificarán a la empresa a través del sistema de gestión, por correo electrónico, teléfono, debiendo la empresa atender las diferentes órdenes de trabajo completando en la aplicación de gestión los datos requeridos, y presupuestando si la hubiere, la actuación propuesta.
Las comunicaciones a la empresa adjudicataria se harán llegar mediante el sistema informático de gestión, por teléfono, o por correo electrónico, debiendo éstos estar operativos, y en caso contrario se ofrecerá un medio alternativo y operativo de comunicación.
Para las comunicaciones telefónicas se dispondrá del teléfono del técnico responsable de la empresa adjudicataria y en su ausencia se deberá comunicar al Servicio de Jardinería Municipal la persona sustituta que asegure la correcta comunicación.

4.1.3.- Eska daitezkeen hizkuntza-baldintzak.
Enpresa esleipendunak aurkeztu beharreko dokumentazioa, hala nola inbentarioak, txostenak, zerrendak, katalogoak, lan-planak, prestakuntza- eta mantentze-planak, lan-parteak, dokumentuak eta ziurtagiriak, lehentasunez euskaraz edo ele bitan idatziko dira. Era berean, eremu publikoan lanak egiteko behar diren seinale/errotuluak euskaraz edo ele bitan jarri beharko dira nahitaez.

4.1.3.- Condiciones lingüísticas exigibles.
La documentación a presentar por parte de la empresa adjudicataria, tales como inventarios, informes varios, listados, catálogos, planes de trabajo, planes de formación y de mantenimiento partes de trabajo, documentos, certificados, estarán redactados preferentemente en euskera o en bilingüe. Asimismo, las señales/rótulos necesarios ante la realización de trabajos en la vía pública estarán redactados obligatoriamente en euskera o en bilingüe.

4.2. LANEN PROGRAMAZIOA.

4.2.1. Urteko jarduketa plana.

Urtero, enpresa esleipendunak urteko jarduketa plana finkatuko du, eta haren balorazio ekonomikoa zehaztu, urtean egin beharreko lan guztiak jasotzeko, udal teknikariekin bat etorriz, eta, gero, udal teknikariek baliozkotu beharko dute.
Aurreikusten diren beharren, aurreikuspen metodologikoen, zona berriak mantendu behar izateko aurreikuspenen, aurreikusten diren baliabide ekonomikoen eta lanen banaketan eragina izan dezakeen beste aldagai ororen araberakoa izango da plana. Urtean zehar egin beharreko lan guztiak jasoko ditu planak, eta are hilez hileko edo urtaroz urtaroko banaketa. Horrela, hilabete bakoitzean fakturatuko diren zenbatekoen adierazgarri izango da; betiere, lanak planari jarraikiz egiten badira. Nolanahi ere, egunero eta hilabetero, kudeaketa aplikazio edo sistemaren bidez, enpresa esleipendunak agindu edo programatutako lanen zerrenda eta egiaz egindakoena helaraziko die Zerbitzu Teknikoei.

4.2.- PROGRAMACIÓN DE LOS TRABAJOS.

4.2.1.- Plan anual de actuación.

Anualmente, la empresa adjudicataria, establecerá un plan anual de actuación valorado económicamente, en el que se recogerán todos los trabajos a realizar en el periodo. Este plan será consensuado y validado por los técnicos municipales.
Este plan se realizará en función de las previsiones de necesidades, previsiones metodológicas, previsiones de recepción de nuevas zonas, previsiones de disponibilidad económica y cuantas otras variables puedan afectar a la distribución de los trabajos. Recogerá todas las actuaciones a realizar a lo largo del año e incluso su distribución por periodos mensuales o estacionales. Así pues, también será indicativo de los importes a facturar cada mes, siempre en el caso de que los trabajos se realicen de acuerdo al mismo. En cualquiera de los casos diariamente y mensualmente la empresa adjudicataria presentará a través de la aplicación o sistema de gestión, a los Servicios Técnicos, el listado de los trabajos ordenados o programados y los realmente ejecutados.

4.2.2. Urtaroko programak.

Behin mantentze lanak egiteko programazio orokorra finkatuta, urtaroko lanak zehaztuko dira, berauek egiteko epemugak jarrita, udal arduradunekin batera. Enpresak programa aurkeztu, eta udal teknikariek onartu beharko dute. Inausketa lanak egiteko, ale berriak landatzeko, izurrien kontrako tratamenduak egiteko, ureztatzeko... kanpainei buruzkoak izango dira programak.

Urtaroko programen barruko lanak programen beren esparruan erabakitako egutegiari jarraikiz egin beharko dira. Behin baino gehiagotan atzeratzen badira eta atzerapenen arrazoiak enpresari egotz badakizkioke, zigorra jarri ahalko da.
Kasu jakin batzuetan, hala nola eskola publikoetan, eskola orduetatik kanpo egingo dira lanak.
Beste leku publiko itxi batzuetan, erabakitzen den orduetan egingo dira.
Kasu horietan guztietan, 48 ordu lehenago, abisu emango zaie interesdunei, eta lanek zenbat iraungo duten jakinaraziko zaie.
Aurreikusitako epeak beteko dira, eta arrazoi justifikatuak direla-eta bakarrik egin ahalko dira aldaketak, udal teknikariekin bat etorriz betiere.

4.2.2.-Programas estacionales.

Definida la programación general de mantenimiento, se procederá a definir las correspondientes a trabajos estacionales estableciendo fechas límite de ejecución, de acuerdo con el responsable municipal. Dicho programa estacional será presentado por la empresa y aprobado por los técnicos municipales. Serán programas relativos a las campañas de poda, campañas de plantación, campañas de colocación de tratamientos para plagas, campañas de riego, etc.
Los trabajos que se deriven de los programas estacionales se deberán ejecutar de acuerdo al calendario acordado en dichos programas. El reiterado retraso, por causas imputables a la Empresa, podrá ser objeto de sanción.
En casos particulares, como trabajos en colegios públicos, se trabajará fuera del horario escolar.
En otros lugares públicos cerrados se trabajará en el horario propio establecido.
En todos estos casos, se avisará a los afectados con 48 h. de antelación y se les informará de la duración de los trabajos.
Se respetarán los plazos previstos, y cualquier variación por causa justificada se hará de acuerdo con el técnico municipal.

4.2.3. Ingurumenaren eta zerbitzuaren kalitatearen kudeaketa.

Enpresa esleipendunak ingurumen eta kalitate gaiak kudeatzeko plan bat izan beharko du, ematen duen zerbitzuaren bidez lortu nahi dituen helburuek legezko eskakizunez gain enpresak bere egiten dituen beste helburu espezifiko batzuk lantzeko, eta hori egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du.
Etengabeko jarraipena egiteaz gain, tarteka, zerbitzu egiteko aplikatzen duen sistemaren kudeaketa ikuskatuko du enpresak, plangintza bati jarraikiz. Barne ikuskatze horren bidez, zehaztutako eskakizunak betetzen dituen ebaluatuko da.
Helburuak finkatu eta ikuskatuta eta programak finkatuta, prozesuen funtzionamendua eta ingurumena hobetzeko oinarri sistematiko bat sortuko da.
Honako hauen arabera interpretatuko da etengabeko hobekuntza:

- Zerbitzua hobetzea, ideia berritzaileetan oinarrituz
- Kostu txikian berritu ahal izatea
- Lehendik datozen ezaupideak aplikatzea
- Ziurtasun handia izatea helburuak lortu izanaren inguruan
- Aplikazio eremua zehaztea
- Mantentze lanak egiten dituen enpresarentzat

4.2.3.- Gestión Ambiental y de la calidad del servicio.

La empresa adjudicataria dispondrá de un plan de gestión ambiental y de calidad para que el servicio prestado desarrolle e implemente unos objetivos que tengan en cuenta además de los requisitos legales otros específicos que la empresa suscriba aportando la documentación acreditativa a tal efecto.
Además de efectuar un seguimiento continuo, la empresa adjudicataria revisará a intervalos planificados la gestión del sistema aplicado al servicio. La auditoría interna constituirá una herramienta para evaluar el cumplimiento de los requisitos especificados.
El establecimiento y revisión de objetivos y el establecimiento de programas proporcionará una base sistemática para mejorar tanto el funcionamiento de los procesos como la mejora ambiental.
La mejora continua se interpretará de acuerdo con los siguientes aspectos:

- Mejoras del servicio basadas en ideas creativas.
- Se podrá innovar con un coste bajo.
- Se aplicarán conocimientos existentes.
- Se requerirá un alto grado de certeza en la consecución de objetivos.
- Se determinará el ámbito de aplicación.
- No presentará un riesgo para la empresa mantenedora.

arriskutsua ez izatea

Besteak beste, honako hauek hartuko dira kontuan ingurumen gaiak kudeatzeko:

- Ingurumena errespetatzen duten metodoak erabiltzea lanak egiteko, ingurumen gaietan indarrean dagoen araudiarekin bat etorriz
- Mantentze lanak bereiztea, maiztasunei eta zona jakin bateko mantentze motari dagokionez
- Ibilgailu eta makinen kutsadura eta zarata txikitzea
- Energiaren erabilera eraginkorra izatea
- Materialak birziklatzea
- Ureztapena modu eraginkorrean kudeatzea
- Klimara egokitutako landareak erabiltzea
- Borroka biologiko edo integratuko neurriak hartzea

La gestión ambiental tendrá en cuenta, entre otros, los siguientes aspectos:

- Incorporación de métodos de trabajo respetuosos con el medio ambiente, acorde con la normativa medioambiental en vigor.
- Mantenimiento diferenciado. Relativo a las distintas frecuencias o tipo de mantenimiento para una zona dada.
- Disminución del ruido y la contaminación de vehículos y maquinaria.
- Eficiencia energética.
- Reciclado de materiales.
- Gestión eficiente del riego.
- Empleo de plantas adaptadas al clima.
- Incorporación de medidas de lucha biológica o integrada.

Antolakundeari berari zein zerbitzu egiteko erabiltzen dituen hornitzaileei dagokienez finkatu ahalko dira helburuak, lortzeko moduko helburuak finkatuta mantentze lanak egiten dituen enpresa bere prozesuen kudeaketan eta ingurumenaren jasangarritasunean inplika dadin.
Zerbitzu egiteko, kalitatea kontrolatzeko eta ingurumen gaiak kudeatzeko plan espezifiko bat izango du enpresak; gainera, Udalak eta bere zerbitzu teknikoek ere kontrolatuko dute kalitatea.

Asimismo la aplicación de objetivos podrá involucrar tanto a la propia organización como a los proveedores de la misma en el ámbito del servicio. Con esto se pretende que la empresa mantenedora se involucre en la gestión de sus procesos y en la sostenibilidad ambiental mediante el establecimiento de objetivos alcanzables.
La empresa adjudicataria dispondrá de un plan de control de calidad y de gestión ambiental específico para el desarrollo del servicio sin perjuicio del propio control de calidad que establezca el Ayuntamiento y sus servicios técnicos.

4.2.4. Lan egiteko aginduak/herritarren abisuak eta programatutako lanak.

Programatutako lanen barruan edo urtaroko lanen barruan aurreikusi gabeko beharrik sortzen bada dena delakoagatik, aginduak emango dira, eta enpresa esleipendunak nahitaez bete beharko ditu.

Enpresa esleipendunak Udal Mantentze Zerbitzuaren abisu eta kexak jaso eta hilabetean konponduko ditu gehienez ere haien bidez jakinarazten zaizkion arazoak. Kudeaketa aplikazioaren bidez, arazoaren diagnostikoa, arazoa konpontzeko modua eta aurrekontua planteatuko ditu, eta, aurrekontua planteatzeko, eskaintzen dituen prezio unitarioetan oinarrituko da.

Behin udal teknikarien oniritzia izanda, dagozkion neurriak hartuko ditu.
Enpresa esleipendunak lan urgenteak eta/edo berehala egin beharreko lanak (BAI direlakoak) egiteko baliabide nahiko eta egokiak izango ditu, Udal Zerbitzu Teknikoek, Udaltzaingoak, babes zibileko zerbitzuek edo suhiltzaileen kidegoak larrialdietan egiten dizkioten eskaerei

4.2.4.- Órdenes de trabajo/avisos ciudadanos y tareas programadas.

Si por las causas que fuera, surgieran necesidades no contempladas en los trabajos programados o estacionales, se emitirán las correspondientes órdenes de trabajo o tareas programadas y serán de obligado cumplimiento por la empresa adjudicataria.

La empresa adjudicataria deberá solucionar, en el plazo máximo de 1 mes a partir de la recepción, los avisos y quejas que el Servicio de Mantenimiento Municipal le indique. A través de la aplicación de gestión, planteará su diagnóstico del problema, el modo, la forma de resolución y el presupuesto confeccionado con los precios unitarios ofertados por la empresa adjudicataria.

Tras obtener el visto bueno de los técnicos municipales, procederá a su ejecución.
Por su posible incidencia, la empresa adjudicataria dispondrá de los medios suficientes para la atención de los trabajos urgentes y/o de atención inmediata (BAI:), con los medios apropiados, a los requerimientos que por

erantzuteko.
Urgentziazko kasuetan, lanak telefono-dei sinple batez aginduko dira, besterik gabe, eta, ondoren, agindu zerrendan sartuko dira, lanak kudeatzeko aplikazioaren bidez.

emergencia puedan realizarse, bien desde los Servicios Técnicos Municipales, como desde la Policía Municipal, los servicios de Protección Civil, o el Cuerpo de Bomberos.
En caso de urgencia los trabajos se encargarán por simple llamada telefónica y se confirmarán posteriormente en el listado de órdenes a través de la aplicación de gestión de los trabajos.

4.2.5. Berehala erantzun beharreko abisuak (BAI direlakoak).

BAI direlako abisuek arriskugarritasun arrazoiengatiko lan urgenteak ere hartzen dituzte barnean. Bada, enpresa esleipendunak berehala erantzun beharko die, eta dena delako arazoa abisua jaso eta zortzi orduan konpondu gehienez ere; bestela, kasuan-kasuan zehaztuko da epea, eta, muturreko kasuetan (adarrak puskatzen direnean, dena delako arazoak zirkulazioan, etxebizitzetan edo jendea ibiltzen den tokietan eragina duenean eta abarretan), baliteke dena delako arazoa berehala konpondu behar izatea.

4.2.5.- Trabajos de atención inmediata denominados “BAI”s.

Con relación a los avisos denominados “BAI´s”, que incluyen actuaciones urgentes por peligrosidad, la empresa adjudicataria deberá darles solución inmediatamente en el plazo máximo de 8 horas desde la recepción del aviso o bien se concretará en cada caso pudiendo en casos extremos llegar hasta la atención inmediata (rotura de ramas, afecciones al tráfico, viviendas, zonas de tránsito etc.).

4.2.6. Guardiak eta erretenak.

Kontuan izanik zer arriskutsuak izan daitezkeen zuhaitzak haizeak gogor jotzen duenean eta zer bereziak diren arriskuak, enpresa esleipendunak guardia eta erretenak antolatu beharko ditu, baldintza hauetan:
Kontratua indarrean dagoen bitartean, haizeak gogor joko duela iragartzen den bakoitzean eta haizeteak direla-eta abisu horia ematen den bakoitzean, gutxienez zuhaitzetan espezializatutako bi langilek osatutako lantalde bat jarriko du enpresa esleipendunak, beharrezkoak diren baliabide materialez hornitua. Eguneko 24 orduetan aurkitzeko moduan egon beharko du taldeak, urgentziaren bat dela-eta deitzen bazaio esku hartzeko prest, eta gehienez ere bi orduko epean agertu beharko du beharrezkoak diren lanak egitera.
Haizeteak direla-eta alerta laranja edo gorria pizten denean, berriz, erretena osatzen duen lantaldeak lau langilek osatutakoa izan beharko du gutxienez.
“Prest” egon behar izateko zerbitzu hori ez da ordainduko espezifikoki, eta, eskaintza aurkezteari dagokionez, lan bakoitza egiteko eskaintzen diren prezio unitarioetan hainbanatu beharko da sortzen duen kostua.
Enpresa esleipendunak unean-unean erretena osatzen duen lantaldearen berri eman beharko dio Udal Lorezaintza Zerbitzuari, argi eta garbi, baita harekin harremanetan jartzeko modurik arin eta azkarrenaren berri.
Enpresak langile gehiago mobilizatzen baditu ohiko lanorduetatik kanpo, lan egiten duten orduak orduka ordainduko dira, zer dagokion.

4.2.6- Guardias y retenes.

Dadas las especiales características en cuanto a los riesgos que el arbolado podría suponer en situación de vientos fuertes, se establece la obligación a la empresa adjudicataria, de disponer de guardias y retenes, según las siguientes condiciones:
La empresa adjudicataria durante la vigencia del Contrato y en todo momento, siempre que haya predicción de vientos fuertes y siempre que se dé el aviso amarillo por vientos, contará con un equipo mínimo de 2 operarios especializados en arbolado con todos los medios materiales necesarios, que se encontrarán perfectamente localizables durante las 24 horas del día y dispuestos a intervenir en caso de ser llamados ante cualquier urgencia, a fin de poder personarse en el lugar del incidente preparados para la actuación necesaria, en un plazo máximo de 2 horas.
En casos de activación de la alerta naranja o alarma roja por vientos el equipo mínimo que formará el retén será de 4 operarios.
Este servicio de “disponibilidad” no generará abono específico alguno, y a efectos de oferta, el coste que pudiera generar deberá prorratearse en los precios unitarios ofertados para los diferentes trabajos.
La empresa adjudicataria deberá tener perfectamente informado al Servicio de Jardinería Municipal del personal que, en cada momento, conforme este retén, así como de la forma más ágil y rápida de toma de contacto.
En caso de que más personal fuera movilizado, fuera del

horario habitual de trabajo, las horas efectivas de trabajo se abonarían “por administración” según corresponda.

4.2.7. Lanen seinaleztapena.

Bide publikoan eta parke publikoetan egin beharreko lanak behar bezala seinaleztatuko dira, langileak eta oinezkoak babesteko, Laneko Segurtasun Planak eta trafiko araudiak ezartzen dituzten segurtasun arauak eta Udaleko Mugikortasun Arloak ezartzen dituenak beteta. Seinaleak eta beharrezkoak diren baliabide osagarri guztiak (hesiak, etab.) enpresa esleipendunaren kontura izango dira. Betiere, Udaltzaingoaren eta Zerbitzuak segurtasun arauak betetzea ziurtatzeko izendatzen duen arduradunaren aginduei jarraituko zaie, eta gutxienez 48 ordu lehenago eskatuko da baimena.

4.2.7.- Señalización de los trabajos.

Los trabajos a realizar en la vía pública y en los parques públicos deberán estar convenientemente señalizados para la protección de los propios trabajadores y de los viandantes, cumpliendo con las normas de seguridad establecidas en el Plan de Seguridad en el trabajo y la normativa de tráfico, así como la que establezca el Departamento de Movilidad Municipal. Esta señalización y todos los medios auxiliares necesarios, correrán a cargo de la empresa adjudicataria (vallas, señales, etc.), que en todo momento, seguirá las indicaciones de la Policía Local y la persona designada por el Servicio para el cumplimiento de la seguridad, solicitando la autorización con un plazo no menor de 48 horas.

4.2.8. Lantokiaren garbiketa.

